

Laudio, 2022ko ekainaren 7an

Laudioko Udalak Lezeaga Aretoa aurkeztu du, Laudioko emakumeen hausnarketarako gunea

Datorren udazkenean jarriko da martxan Laudioko emakumeentzako ahalduentze eskola

Laudioko Udaleko Emakume eta Berdintasun Zerbitzuak diseinatutako Lezeaga Aretoa izeneko espazio berriaren (Granjabide 17) hiru helburuak emakumeen autonomia sustatzea, dauden desberdintasunez jabetzea eta berdintasunaren alde lan egiteko beharraren barneraketa sustatzea dira. "Historikoki, sorginak, sistema patriarkalean ezarritako eredutik aldentzen ziren emakume ausart, errebelde, autonomo, jakintsu, askeen... sinboloa izan dira. Horregatik guztiagatik, Laudioko emakumeentzako hausnarketarako, hazkunderako eta topaketarako lekua definitzeko oso izen egokia iruditzen zaigu", adierazi du Loli Muriel Gizarte Garapeneko zinegotziak. Bestalde, udal-saila dagoeneko lanean ari da espazio berri horren erabilera-araudia egiteko, haren erabilera, ordutegia eta sarbide-baldintzak zehazteko, besteak beste.

Izan ere, ekainaren 25ean, 27an eta 28an, 11:00etan, 10:00etan eta 17:00etan, hurrenez hurren, Alaia Gaztelumendi ilustratzaileak, 16 urtetik gorako Laudioko emakumeekin batera, hormairudi bat egingo du azpiegitura berrituan, Lezeaga Aretoan. "Artistak diseinatu duen horma-irudiak pintura eta mosaikoaren teknikak

uztartuko ditu eta haratago joango da, ilustrazioak Lezeagaren historiari omenaldia egitea bilatzen duelako, gure arbasoei eta egungo emakumeen borroka feministari erreferentzia eginez. Artelana horma bikoitz batean eta hiru zutabetan islatuta geratuko da”, zinegotziak zehaztu duenez. Saio bakoitza bi orduz luzatuko da eta gehienez 8 plaza egongo dira.

Horretaz guztiaz gain, eta emakumeen ahalduntze soziala sustatzeko xedez, Laudioko Udalak udalerriko emakumeen talde eragilea osatuko du. Emakume feministen elkarteek eta kolektiboek ere tokia izango dute bertan. Talde eragile horren bidez, udal-administrazioak proiektu estrategikoak zehaztu nahi ditu, emakumeen kontseilu parte-hartzailea, besteak beste.

Horma-irudian edo/eta kontseiluan parte hartu nahi dutenek Emakume eta Berdintasun Zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko dute 94 403 48 55 telefono-zenbakira deituz edo berdintasuna@laudio.eus helbide elektronikora idatziz.

AHALDUNTZE ESKOLA

Berrikuntza gisa, aurten Laudioko emakumeentzako ahalduntze-eskola ere jarriko da abian. Ekimen horren bidez, Laudioko emakumeen beharrei erantzun nahi zaie. Proiektua datorren udazkenean kaleratuko da. Nolanahi ere, programatutako ekitaldi gehienak Lezeaga Aretoan egingo dira. “Emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzeko ilusioz eta udalerriko emakumeekin elkarreraginean aritzeko hainbat formula aktibatze gogoz gaude,” amaitu du Laudioko zinegotziak.